



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

► Gizarte Ekintza  
Acción Social

Urdaneta, 13 | Tel. 943481400 | www.donostia.eus  
20006 Donostia / San Sebastián

## GIZARTE EKINTZAKO AHOLKU BATZORDEA CONSEJO ASESOR DE ACCION SOCIAL

### BILERA-AGIRIA / ACTA

**EGUNA / DIA:** 2017KO abenduaren 19an  
**ORDUA / HORA:** 12:30  
**LEKUA / LUGAR:** Donostiako Udaleko Pleno Aretoan- Salón de plenos del Ayuntamiento de Donostia  
**BATZAR MOTA / SESION:** Ohikoa

### BERTARATUTAKOAK / PRESENTES

AFAGI – Antton Elosegi  
ARRATS – Amaia Lasheras  
GIPUZKOAKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEEN ELKARTE SINDIKALA / ASOCIACION ASADE – M.<sup>a</sup> Eugenia Pardo  
ASOC. CAMELAMOS ADIQUERAR – Juan Carlos Barrul  
GIPUZKOAKO EPILEPSIA ELKARTEA / ASOC. GIPUZKOANA DE EPILEPSIA- Alfonso Lopez de Etxezarreta  
FAMILIAKO ZAINTZAILEEN ELKARTEA / ASOC. PARA EL CUIDADO FAMILIAR - Luis Paisan  
ATECE GIPUZKOA- Lourdes Carrasco  
ATZEGI – Saioa Rodriguez Ordoki  
AVAIM – Hortensia Gonzalez  
GIPUZKOAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OF. / COLEGIO OF. TRABAJO SOCIAL G.- M<sup>a</sup> Rosa Ugalde  
GURUTZE GORRIA / CRUZ ROJA – Elena Luquin  
ELKARTU- Raquel Barroso  
GAZTEDI ASOCIACION INTERVENCION SOCIAL- Raúl Giraldés  
GUREAK INKLUSIO FUNDAZIOA- Mariano Cortes  
HELDUEN HITZA – Juan Ignacio Aizpurua y Luis Felipe Hernandez  
IRESGI – Koro Paradero  
NAGUSILAN- VOLUNTARIADO SOCIAL MAYORES- Jesus M.<sup>a</sup> Zaldua Iñurrategui  
ONCE – Miguel Angel Aizpurua  
SARGI- Rosa Rubio Garzón  
UME ALAIA GIPUZKOA – Rosa Barrio  
ZORROAGA FUNDACION- Pablo Garcia  
EH BILDU- Olaia Duarte  
IRABAZI DONOSTIA- Raisa Iratxe Garcia  
LEHENDAKARITZA- Aitziber San Roman  
GIZARTE EKINTZAREN ZUZENDARITZA / DIRECCION DE BIENESTAR SOCIAL- Tere Barrenetxea y Elvira Cid  
IDAZKARIA- Mikel Esnal

### ESAN-EGINAK / DESARROLLO DE LA REUNIÓN

1.- Aurreko bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.	1.-Lectura y aprobación, si procede, del acta de la reunión anterior.
Akta onartu dute.	Se aprueba el acta.



<p><b>2.- ASADE elkartea Kontseiluan parte hartuko duela jakinaraztea.</b></p> <p>Kontseiluak aho batez onartu du.</p> <p><b>3.- 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia personala eta zainketa sustatzekoak, ezarritako prestazio ekonomikoak arautzen dituen FORU DEKRETU PROPOSAMENArenguruko iruzkina.</b></p> <p>M. Rosa Ugalde, ELKARTU elkartearren ordezkaria, honako hau esan du Foru Dekretuari buruz:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Ez daude ados foru dekretu proposamena onartzeko jarraitu duten prozedurarekin. Izan ere, ez dute behar bezala kontuan hartu Hirugarren Sektore Sozialaren parte hartzea.</li><li>• Familiako zaintzaileek ikastaro bat egin beharraren kontra daude. Izan ere, zalantzan jartzen da ematen den zaintzaren kalitatea, eta hori ez da lagungarria familiakoak zaintzen dituztenen lana aitortzeko eta duin egiteko.</li><li>• Zenbateko berriei dagokienez, mendekotasun mailak kendu egiten direnez, zenbait pertsonari mesede egingo die horrek, baina beste batzuei kalte. Eskatu dute inori ez jaistea prestazioaren zenbatekoa.</li><li>• Desgaitasun edo mendekotasunen bat dutenek familiakoak zaintzerik ez daukatela eta, adierazi dute diskriminazioa dela hori, eta indarrean den lege esparruaren kontrakoa dela, batez ere Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren kontrakoa.</li><li>• Zerbitzua jasotzen dutenei urtero jarraipen bat egin behar izatea dela eta, ez daude ados jarraipen eta kontrol lan hori mendekotasun prestazioen araudiarekin lotzearekin.</li></ul> <p>Horren aurrean, bi aukera planteatu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>•Gizarte Ekintzako Kontseiluak bere egitea ELKARTUren analisia.</li><li>•Aldundiari Kontseiluan parte hartzeko eskatzea, gai honi buruz hitz egiteko.</li></ul> <p>Kontseiluak, printzipioz, bi aukerak onartu ditu.</p> <p><b>4.- 2018ko aurrekontuaren azalpena eta eztabaida.</b></p> <p>Lehenik eta behin, Aitziber San Romanek onartu du proposamena berandu ekarri dutela Kontseilura, eta aurrekontuak Gizarte Ekintzako Kontseiluan aztertzeko modua hobetzeko borondatea agertu du.</p>	<p><b>2.-Dar cuenta de la incorporación de la Asociación ASADE al Consejo de Acción Social.</b></p> <p>El Pleno del Consejo aprueba la admisión.</p> <p><b>3.- Comentarios sobre la PROPUESTA DE DECRETO FORAL por el que se regulan las Prestaciones económicas de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia (a propuesta de la Asociación ELKARTU).</b></p> <p>M. Rosa Ugalde. En representación de ELKARTU hace las consideraciones siguientes en relación a este Decreto Foral.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>•Desacuerdo con el procedimiento seguido para aprobar la propuesta de Decreto Foral, dado que no se ha contado de la manera adecuada con la participación del Tercer Sector Social.</li><li>•Posición contraria a la exigencia de un curso para las/los cuidadoras/es familiares, dado que pone en cuestión la calidad de los cuidados prestados, y no contribuye a reconocer y dignificar la labor de quienes llevan a cabo la labor de cuidados familiares.</li><li>•Respecto a los nuevos importes, dado que se eliminan los niveles de dependencia, algunas personas saldrán beneficiadas y otras perjudicadas. Se ha solicitado que nadie vea reducido su importe de prestación.</li><li>•Respecto al requisito de que los cuidados familiares no puedan ser realizados por una persona con discapacidad o en situación de dependencia, se ha planteado que constituye un caso de discriminación que resulta contrario al marco jurídico vigente, en especial de la Convención sobre los derechos de las personas con discapacidad.</li><li>•Ante la exigencia de llevar a cabo un seguimiento anual de las personas beneficiarias de la prestación, se ha mostrado el desacuerdo con vincular la labor de seguimiento y control con la regulación de las prestaciones de dependencia.</li></ul> <p>Ante este tema se plantean dos posibilidades:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>•Que el Consejo de Acción Social haga suyo el análisis de ELKARTU.</li><li>•Que se solicite la presencia de la Diputación en el Consejo para tratar este tema.</li></ul> <p>El Consejo acepta, en principio, las dos alternativas.</p> <p><b>4.- Presentación y discusión del presupuesto 2018</b></p> <p>En primer lugar Aitziber San Román admite que esta propuesta se ha traído tarde al consejo y muestra su voluntad de mejorar a futuro en el modo de tratar los presupuestos en el Consejo de Acción Social</p>
--	--



<p>Jakinarazi dute abenduaren 22an, ostiralean, Udalbatzak 2018ko udal aurrekontuen gainean eztabaidatuko duela.</p> <p>Ondoren, 2018ko Gizarte Ekintzako Aurrekontuen aurkezpena egin dute.</p> <p>Bileran, aurrekontuaren inguruko hainbat argibide eta informazio eskatu dute, baina honako hauek dira kontseilukieek egindako iruzkin eta proposamen esanguratsuenak:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>•Aurrekontuak hobeto lantzeko hainbat proposamen egin dituzte: kontu-sail handietan zentratzea, hobeto ezagutzea baliabideak izendatzeko irizpideak, behar sozialaren joera ezagutzea eta aurrekontuetan horri nola erantzuten zaion ikustea.</li><li>•Hainbat muga planteatu dituzte: Gizarte Zerbitzuen Legea eta zorroak berekin dakartzan betebeharra (bete beharreko gabeziak).</li><li>•Ez da ahaztu behar Gizarte Zerbitzuen zorroak ezartzen duenaz gain badirela beste zenbait jarduera eremu ere.</li><li>•Elkarrenzako lokalei buruzko galdera bat egin dute. Eskuratzeako modua, egoera (lokal hutsak...). Kontua argitu dute.</li><li>•Adierazi dute zaila dela aurrekontuen gainean proposamenak egitea: ez dakite zer tarte dagoen aurrekontua planifikatzeko, ezta zer behar berri dauden ere; kontuan izan beharko lituzkete zeharkako elementuak (irisgarritasuna, aislaldia eta abar).</li><li>•Hobetza udal aurrekontuak Gizarte Ekintzako Kontseiluan komunikatzeko eta aztertzeko metodologia: urtetik urterako konparaziozko analisiak eta beste datu esanguratsu batzuk (arreta jaso duten pertsonak...).</li><li>•Udalaren gizarte gastuan izandako igoera txikiagoa da beste udal atal batzuen gastuan izandako igoera baino.</li><li>•Azpimarratu dute aurreko legealdian zenbait gastutan egindako ahalegina, zer garrantzitsua den gizarte eragileen iritzia entzutea, udal gastuan egoki islatzea egoera ekonomikoan izan den hobekuntza eta zer komenigarria den superabita ondo kudeatzea.</li><li>•Gaueko arreta zentroa urte guztian irekitzea.</li><li>•Kontuan izatea Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta desagertu dela Gizarte Larrialdiko Laguntzen kontu sailetan.</li><li>•Gizarte ekimenerako laguntzak areagotzea.</li><li>•Arreta ematea haurtzaro oso goiztiarrean eta gaixotasun arraroen esparruan.</li><li>•Ebaluazio ikuspegia mantentzea Gizarte Ekintzan.</li><li>•Kontuan izatea gizarteratze eta laneratzearen arloa eta horrek gizarte jarduketako alorrekin duen lotura. Bereziki aipatu dute gorrek enplegu zerbitzu publikoetara sartzeko aukera izatea.</li></ul>	<p>Se informa de que el viernes 22 de diciembre los presupuestos municipales 2018 se debatirán en el Pleno.</p> <p>A continuación se hace una presentación de los presupuestos de Acción Social de 2018.</p> <p>Al margen de diversas aclaraciones e informaciones en relación al presupuesto producidas a lo largo de la sesión, se destacan algunos comentarios y propuestas de los/as miembros del Consejo:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>•Se apuntan propuestas para trabajar mejor los presupuestos: centrarse en grandes partidas, conocer mejor los criterios de asignación de recursos, conocer la tendencia de la necesidad social para compararla con la respuesta en presupuestos.</li><li>•Se comentan las limitaciones: la Ley de Servicios Sociales y las obligaciones derivadas de la cartera (déficits a cumplir).</li><li>•No hay que olvidar que hay ámbitos de actuación además de lo que marca la cartera de Servicios Sociales.</li><li>•Se plantea alguna pregunta en relación a los locales para asociaciones. Acceso, situación (locales vacíos...). Se aclara.</li><li>•Se plantea la dificultad de plantear propuestas a los presupuestos: se desconocen los márgenes de maniobra que existen en la planificación del presupuesto, tampoco las nuevas necesidades, habría que tener en cuenta elementos transversales (accesibilidad, ocio, etc...).</li><li>•Mejorar la metodología de comunicación y tratamiento de los presupuestos municipales en el Consejo de Acción Social: análisis comparativos interanuales y otras magnitudes significativas (personas atendidas...)</li><li>•El incremento del gasto social municipal es menor comparado con el gasto de otras áreas municipales.</li><li>•Se destaca el esfuerzo realizado en la legislación anterior en algunos ámbitos de gasto, la importancia de escuchar la opinión de los agentes sociales, el reflejo adecuado en el gasto municipal de la mejora de la situación económica y la conveniencia de gestionar bien el superávit.</li><li>•Abrir el Gaueko (Centro de Atención nocturna) todo el año.</li><li>•Tener en cuenta la desaparición de las AGI en las partidas de Ayudas de Emergencia Social.</li><li>•Incrementar las ayudas para la iniciativa social.</li><li>•Atención hacia la infancia muy temprana y las enfermedades raras.</li><li>•Mantener el enfoque evaluador en la Acción Social.</li><li>•Tener en cuenta el ámbito de la Inserción Socio-Laboral y su relación con los ámbitos de actuación sociales. Mención particular las posibilidades de acceso de las personas sordas a los Servicios Públicos de Empleo.</li><li>•Quejas recibidas por un grupo municipal (Irabazi Donostia) sobre impagos de salarios en un servicio</li></ul>
--	--



<ul style="list-style-type: none"><li>• Udal talde batek (Irabazi Donostia) jasotako kexak, udal zerbitzu batean (Gaueko) soldatak kobrau ez dituztela eta.</li><li>• Indarkeria matxistaren protokoloari buruzko informazioa eta Berdintasun Kontseiluak eta Gizarte Ekintzako Kontseiluak elkarrekin egiten duten lanari buruzko informazioa.</li></ul>	<p>municipal (Gaueko).</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Información sobre el protocolo de violencia machista y el trabajo conjunto entre el Consejo de Igualdad y el Consejo de Acción Social.</li></ul>
<p><b>5.- Galde-eskeak.</b></p> <p>Ez da izan aurreko puntueta adierazitakoaz bestelako galdera edo eskaerarik.</p>	<p><b>5.- Ruegos y preguntas</b></p> <p>No se recogen de manera específica más allá de las mencionadas en los puntos anteriores</p>

## PROPUESTAS Y PREGUNTAS PLANTEADAS Y ESTADO/EGINDAKO PROPOSAMEN ETA GALDERAK ETA EGOERA

<p><b>1. Kontseiluak nola tratatu duen ELKARTUREn gutuna, 39/2006 Legearen prestazio ekonomikoak arautzen dituen Foru Dekretuari buruzkoa.</b></p> <p>Nahiz eta Kontseiluak onartu dituen gorago adierazitako bi aukerak, proposatu dute, lehenik eta behin, Foru Aldundia gonbidatzea, zer gogoeta egin dituen azal dezan, eta gero erabakitzea Kontseiluak zer jarrera zehatz hartuko duen horren inguruan.</p> <p>Horretarako, Aldundiko Gizarte Zerbitzuekin jarriko da harremanetan Lehendakaritza, Kontseiluan haien parte hartzea antolatzeko.</p>	<p><b>1. Sobre el tratamiento por parte del Consejo de la carta de ELKARTU sobre el DECRETO FORAL por el que se regulan las Prestaciones económicas de la Ley 39/2006.</b></p> <p>Aunque el Consejo aceptó las dos alternativas comentadas más arriba, se propone, en primera instancia, invitar a la Diputación Foral a que presente sus consideraciones para, con posterioridad, decidir la posición concreta del Consejo.</p> <p>A tal efecto la Presidencia se pondrá en contacto con los servicios sociales forales para organizar esta participación en el Consejo.</p>
<p><b>2. Kontseiluak udal aurrekontuak egiteko prozesuan parte hartzeko prozedura hobetzea dela eta</b></p> <p>Gai hori Batzorde Iraunkorrean aztertu dute, eta lan dinamika espezifiko bat zehazteko konpromisoa hartu dute, Kontseiluak 2019ko aurrekontuak egitean modu eraginkorragoan parte hartzeko: egutegia, metodología...</p>	<p><b>2. Sobre la mejora del procedimiento de la participación del Consejo en la elaboración del presupuesto municipal.</b></p> <p>Este tema ha sido tratado en la Comisión Permanente y se ha adoptado el compromiso de definir un dinámica de trabajo específica que permita una mayor eficacia de la participación del Consejo en la elaboración de los presupuesto 2019: calendario, metodología...</p>
<p><b>3. GAUEKO zerbitzuan soldatak ez ordaindu izanari buruzko galdera dela eta</b></p> <p>Galdera hori zerbitzua kudeatzen duen empresari egin zioten, eta hark ukatu egin du salatutako egoera hori gertatu zenik.</p>	<p><b>3. Sobre la pregunta referida a los impagos salariales del servicio GAUEKO.</b></p> <p>La pregunta fue trasladada a la empresa que gestiona el servicio que negó que el impago denunciado se hubiera producido.</p>